

IRURAKO JAIETAN EMAN DAITEZKEN INDARKERIA SEXISTA KASUEN AURREAN ERANTZUTEKO HERRI MAILAKO PROTOKOLOA



AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
- 2.- PROTOKOLOAREN ERATZE PROZESUA
 - 2.1.- PROZESUAREN FASEAK
- 3.- PROTOKOLOAREN ERAGIN EREMUA
 - 3.1.- ZEIN MOMENTUTAN JARRIKO DA MARTXAN PROTOKOLOA
 - 3.2.- ZE KASUEI ERANTZUNGO DIE PROTOKOLO HONEK
- 4.- PROTOKOLOAREN KOORDINAZIO GUNEA
- 5.- PROTOKOLOA GIDATZEN DUTEN PRINTZIBIO NAGUSIAK
- 6.- INDARKERIA *sexista*REN PREBENTZIOA
- 7.- BIKTIMARI ARRETA
 - 7.1.- ARRETARAKO JARRAIBIDE NAGUSIAK ETA BALIABIDEAK
- 8.- ERANTZUN PUBLIKOA
 - 8.1.- ERANTZUNA ERAIKITZEKO OINARRIAK
- 9.- PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA
- 10.- ERANSKINAK

1. SARRERA

Indarkeria sexista, emakume izateagatik emakume guztiek jasaten duten indarkeria izateaz gain, identitate, gorputz eta desira ez normatiboek (indarkeria LGTBI+ fobikoa) jasaten dutenari ere egiten dio erreferentzia.



Jakin badakigu ere, indarkeria zuzenekoak izan badaiteke ere, estrukturala edo egiturazkoa, eta kulturala edo sinbolikoa ere badela. Gure herrietako jaietan, indarkeria guzti hauen presentzia nabaria da. Jaiak gizartearen isla dira. Zer garen, nola irudikatzen garen, adierazi nahi duguna... azaleratzen dugu. Herri deintitatearen erakusle dira jaiak.

Zentzu honetan jaien testuinguruan gure egunerokotasunean bezala, rolen eta denboraren banaketa nabaria eman ohi da, emakumeak dira jai testuinguruan ere zaintza lanetaz arduratzen direnak eta gizonak kaleaz gozatzeko aukera gehiago izan ohi dute. Guzti honen atzean kokatzen da egiturazko indarkeria.


Jaiak eduki sinbolikoz jositako kultur adierazpenak dira eta testuinguru honetan ere birsortzen dira hegemonikoak diren botere harremanak, rol banaketa, indarkeria adierazpenak etab...

Oraindik ere jendarteak indarkeria honen inguruan egiten duen analisia oso partziala da, ez baita honen atzean dauden eragile eta faktoreen inguruan hausnartzen, hots, emakume eta gizonen arteko ezberdinkeriarekin duen lotura ikusarazten.

Hortaz, Irurako jaietan indarkeria sexistari aurre egiteko PROTOKOLOA tresna eraginkorra izan daiteke, hiru ardatzetatik:

- Herriko jaien testuinguruan eman daitezken erasoen PREBENTZIOA lantzeko.
- Eraso bat ematen denean eman beharreko URRATSAK argi izateko.
- Eman beharreko ERANTZUN INSTITUZIONALA edo PUBLIKOA antolatzeko.

Gainera, Irurako protokoloa elaboratzeko prozesua bera parte hartzailea izan da, bertan inplikatu diren eragileen sentsibilizazioa eta inplikazioa erabatekoa izan delarik. Partaidetzazko metodologiaren bitartez, hausnarketa indibidualetik kolektiborako bidea jorratu da, gaiaren inguruko ezagutzaren zabalkundea bultzatuz eta heziketa sozialerako jarduerak bilakatuz.



2. PROTOKOLOAREN ERATZE PROZESUA

- **PROIEKTUAREN BULTZATZAILEA:** Proiektu hau Irurako Udalak bultzatu du bere Berdintasun Arloaren bitartez. Horretarako herrian "Kultur Mahaia" osatzen duten eragile sozialen partaidetzarako ibilbidea gauzatu da.
- **PROTOKOLOAREN DISEINUAN PARTE HARTZAILEAK:** Irurako "Kultur Mahaia" deritzon gunean parte hartzen duten eragileak dira prozesu honen subjektu nagusiak:

IRURAKO KULTUR MAHAIA

Lorena Alonso - Irurako Ikastola
Marimi Ugalde - Irurako Jubilatua
Nora Iñurrita- Irurako Irakurle Taldea
Goizargi Oruesagasti - Irura Bizi
Edurne Ayuso - Irura Moretuz
Begoña Vazquez - Irura Moretuz
Naroa Lasa- Irurako Gazte Asanblada
Igone Gutierrez- Irurako Gazte Asanblada

ORDEZKARI POLITIKOAK


Gorka Murua
Noelia Lataburu

UDAL LANGILEAK

Josune Artola- Irurako Udaleko Eragile Soziokulturala
Alex Lasa- Irurako Udaleko Kultur Teknikaria

2.1 LAN PROZESUAREN FASEAK

Irurako jaietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzuteko herri mailako protokolo hau sortzeko parte hartu duten eragileekin honako lan prozesua jarraitu da:



1.SAIOA
INDARKERIA SEXISTA
INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA
2023/05/25


- Indarkeria sexistaren inguruko formazio/sentsibilizazio saioa:
- Marko legala eta kontzeptu desberdinen arteko antzekotasun eta desberdintasunak.
 - Indarkeria zuzena, egiturazkoa eta sinbolikoa.
 - Indarkeria sexistaren inguruan dauden mitoak eta zurrumurruak deseraikiz.
 - Jaien testuinguruan ematen diren indarkeria adierazpen eta formak. Identifikatu eta aurre hartu.

2.SAIOA
PROTOKOLOAREN EGITURAREN
NONDIK NORAKOAK
2023/06/13

- Protokoloaren EGITURA aurkeztu da:
- Jaien testuinguruan prebentzio neurrien diseinua.
 - Eraso baten aurrean esku hartzearen nondik norakoak.
 - Arreta eta erantzun publikoa.

3.SAIOA
PROTOKOLOAREN EGITURAREN
NONDIK NORAKOAK
2023/07/04


- Protokoloaren ZIRRIBORROA aurkeztu da:
- Jaien testuinguruan prebentzio neurrien disienuearekin jarraituko da.
 - Protokoloaren zirriborroa aztertuko da, behar diren zuzenketa eta egokitzapenak eginez.



**BEHIN BETIKO ONARPENA
ETA PROTOKOLOAREN
HEDAPENA HERRIAN**

- Prozesuan parte hartu duten eragileek protokoloaren behin betiko onarpena egingo dute eta hau herritar guztiek ezagutu eta eskura izan dezaten bitartekoak jarriko dira (Udaleko App-a, web orria, aurkezpen publikoa...)





3. PROTOKOLOAREN ERAGIN EREMUA

3.1.- ZEIN MOMENTUTAN JARRIKO DA MARTXAN PROTOKOLOA

Protokolo hau honako jai eta ospakizunetan egongo da indarrean:

- IRURAKO SAN MIGEL JAIAK

3.2.- ZE INDARKERIA KASUEI ERANTZUNGO DIE PROTOKOLOAK

Protokolo hau Irurako jai eta ospakizunen testuinguruan eman daitezken INDARKERIA sexista kasuen aurrean aktibatuko da.

Indarkeria sexista kontsideratuko dugu sozializazio binarioan eta genero ezberdintasunean jatorria duen indarkeria. Honen barne kokatzen ditugu;

- **Indarkeria matxista:** Emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria. Honen helburua emakumeen kontrola eta haien gaineko nagusitasuna betiketzea da.
- **Beste indarkeria sexista batzuk:** atxikita daukaten genero binario eta sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonen pairatzen dituztenak. Homofobia, lesbofobia, transfobia eta intragenero indarkeria lirateke.(*)

(*1 "Indarkeria sexistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria"-n proposatutako definizioa.
<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/73649/Terminolog%C3%ADa-+Indarkeria+sexistaren+arloko+kontzeptuak/e3735ecc-9da2-413f-a476-f930a8bfc6f1>



4. PROTOKOLOA GIDATZEN DUTEN PRINTZIPIO NAGUSIAK

- **BERDINTASUNA:** Arreta biktima guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da. Egoera zibila, orientazio sexuala, adina, sinesmen edo ideología, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko, maila ekonomiko, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentSORIALA, edo izaera pertsonal edo soziala edozein dela ere.
- **PREBENTZIOA:** Protokolo honen xede nagusia herriko jai eta ospakizunetan indarkeria sexista egoerarik eman ez dadin oinarri sendoak finkatzea da. Horretarako ezinbestekoa da jai eta ospakizunen testuinguruan eman daitezken indarkeria sexista egoera eta adierazpenak saihesteko tresnak sortzea, hots, herritarren sentsibilizazioa eta inplikazioa bideratu ahal izateko prebentzioa lantzea.
- **KUDEAKETA KOHERENTEA ETA KOLEKTIBOA:** Indarkeria sexistaren kasuen aurrean, kudeaketa koherente eta kolektiboa burutzen lagunduko digu protokoloak. Helburua euskarri praktikoa izatea da, zer egin, nola, zergatik eta norekin erabakitzen lagunduko diguna.
- **ARRETA INTEGRALA:** Protokolo honen aplikazioan biktima bakoitzak izan ditzaken behar espezifikoak hartu beharko dira kontuan, horretarako udalean, lurraldean eta erkidegoan eskura dituen baliabide guztiak eskainiko zaizkiolarik.
- **ERANTZUN BATERATUA:** Udalak, herri eragileak eta herritarrak biltzen dituen erantzun integrala bideratuko da, herritar ororen inplikazioa eta biktimaren biktimizazio bikoitza ekidingo duena.



5. PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAIA

Irurako jaietan eman daitezken indarkeria sexista kasuen Koordinaziorako Mahaia honako hauek osatuko dute:

- IRURAKO UDALA
 - Alkatetza
 - Gizarte Zerbitzuak
 - Berdintasuna
- HERRI ERAGILEAK
 - Irura Moretuz

Protokolo honen eraginkotasuna bermatze aldera Koordinazio Mahaiaren eginkizunak honakoak izango dira:

- Irurako eragile desberdinekin etengabeko komunikazioa bermatzea.
- Protokolo hau ezagutu eta elkarrekin aritzeko prozedura ezagutzea.
- Protokoloan jasotako neurriak (arreta eta erantzun publiko instituzionala) abian jartzea eta jaien antolaketa markoan jarraipena egitea.
- Urtero jaien antolaketaren markoan protokoloaren jarraipenerako bilera burutzea, beharrezkoa bada egokitzapenak eta zuzenketak eginez.
- Jaien testuinguruan indarkeria sexistaren aurrean prebentzioa/sentsibilizazioa antolatzea eta horri aurre hartzeko estrategiak bultzatzea, horiek garatzen lagunduz eta eragina ebaluatuz.
- Protokoloaren berri emateko, sozializatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak burutzea.
- Protokoloaren ebaluazioa, bi urtean behin edo eta aktibatu den bakoitzean.

6. PREBENTZIOA



Jai eta ospakizunen testuinguruan aplikatuko den protokolo honen barne prebentzioaren esparruak etengabeko lanketa eskatzen du. Honen diseinurako garatu den partaidetza prozesuaren baitan 2023 urteko San Migel jaletarako honakoak izan dira aurreikusi diren prebentziorako tresnak:

- IKUS ENTZUNEZKO EUSKARRIAK (Bideoa, App)
- EUSKARRI FISIKOAK (Jaletako programan indarkeria sexista kasu baten aurrean esku hartzeko irizpideak txertatu dira)
- GUNE MOREA

Egun Iruran jai eta ospakizun garrantzitsuenen egitaraua osatzearen ardura duen lan taldea "Kultur Mahaia" deritzona da. Bertan parte hartzen dute herriko eragile desberdinek eta udal arlo batzuetako teknikari eta arduradun politikoek.

Hortaz, protokolo hau onarpenetik abiatuta, datozen urteei begira lan talde hau izango da, udaleko berdintasun arloaren parte hartzearekin batera prebentzio atalaren antolaketaz arduratuko dena.

7. BIKTIMARI ARRETA



Indarkeria sexistaren biktimari arreta integrala emate aldera protokolo honetan jasotzen dira alde batetik horrelako egoera batetan esku hartzeko jarraibideak eta bestetik biktimaren arretarako Iruran eskura dauden baliabideak.

7.1.- ARRETARAKO JARRAIBIDE NAGUSIAK ETA BALIABIDEAK

Biktimaren arretarako BI UNE desberdinak hartuko dira kontuan:

1.UNEA: HARRERA ETA LARRIALDIKO ARRETA

Biktimari harrera eta lehen arreta emateak esan nahi du:

- ENTZUTE AKTIBOA: Aurreritziarik gabe biktimari entzutea. Berari errua ez egozte, beharrezkoak ez diren galderak ez egin. Momentu horretan zer behar duen galdetzea, jarrera paternalistarik adierazi gabe.
- BIKTIMAREN NAHIA ERRESPETATU: Momentu horretan zer nahi duen erabaki dezan. Horretarako dituen premiak adierazten lagundu behar zaio: osasun laguntza behar duen, konpainia, pribatutasuna...
- EZ PRESIONATU: Denbora behar dezake zer egin nahi duen erabakitzeko.
- ERRESPETATU: Adinez nagusia bada, momentu horretan behar duen informazioa eman eta adingabea bada garrantzitsua da hura zaintzeko ardura duten pertsonekin kontaktuan jartzea.
- ULERTU: Une horretan salaketa jarri nahi ez badu ez duela esan nahi eraso bat jasan ez duenik. Geroago har dezaken erabakia da hau.



IRURAKO JAIETAN LARRIALDI ARRETARAKO BALIABIDEAK

- **SOS- LARRIALDIAK 112**
- **SATEVI 900 840 111**
(Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua)

2.UNEA: ARRETA ESPEZIALIZATUA

Larrialdiko arreta horren ondoren, zerbitzuetako profesionalek emango duten arreta espezializatua dator. Erasoen eta lehen arretan egin den deribazioaren ondoren has daiteke, hau da, harrera egin eta krisian esku hartu duenaren deribazioaren ondoren. Baina arreta espezializatua eraso gertatu eta berehala (ordu batzuetan) eta ondoren (egun batzuetan) eman daiteke, kontuan hartuta erasoaren eragina aldatu egiten dela eta desberdin agertzen dela emakume bakoitzean. Gerta daiteke biktima egun batzuk geroago ohartzea jasandako erasoaz, eta, beraz, arreta eskatzea jaiak amaitu direnean.

ARRETA ESPEZIALIZATURAKO BALIABIDEAK

- **OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK, IRURAKO UDALA: 943 69 13 33**
- **Gizarte Larrialdien Koordinazioko Foru Zerbitzua (SFUS): 943224411**
- **TOLOSAKO EMAKUMEEN ETXEA "ANDRAGORA"***

* Protokolo hau egin den momentuan Tolosako Emakumeen Etxean "Andragora" esleipen prozesuan dago bertan eskaini beharreko aholkularitza juridiko eta psikologiko zerbitzua. Hau ebatzi ahala, protokolo honen baliabideen atalean txertatuko da.

8. ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALA

Jaien testuinguruan ematen den indarkeria sexista kasu baten aurrean erantzun publiko instituzionalerako honako urratsak emango dira:

- **PROTOKOLOAREN KOORDINAZIORAKO MAHAIAREN BILKURA:** Koordinazio mahaia bilduko da datozen ordu eta egunetan eman beharreko urratsak aztertu eta adosteko.
- **BIKTIMAREKIN ETA HAREN INGURUNEAREKIN KONTAKTUA:** Erantzun publikoaren helburu nagusia biktimari erreparazioa ematea da. Berari eta bere senide eta gertukoei laguntzeko baliabideak eskainiko zaizkie. Baliabide horiek presaz aktibatuko dira eta biktimaren eta haren familiaren uneko beharretara egokituko dira.
- **ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALAREN ANTOLAKETA:** Koordinazio mahaiak erantzun publiko instituzionala antolatzeko honako erabaki hauek hartu beharko ditu:
 - **ARDURADUNA/BOZERAMAILEA:** Koordinazio mahaiak pertsona arduradun bat izendatuko du, zeinak erantzun publikoa adostutako irizpide eta jarraibideetan oinarrituta gauzatzen dela bermatuko duen.
 - **ERANTZUN PUBLIKO INSTITUZIONALERAKO EKIMENAK:**
 - Erasoaren berri izan eta hurrengo orduetan edo egunean egitarauan aurreikusitako ekimenak bertan behera uztearen egokitasuna aztertu eta erabakiko da.
 - **ELKARRETARATZEA:** Herriko plazan herritarrei burutuko den elkarretaratzean parte hartzea deituko zaie:
 - Elkarretaratzerako lema bat aukeratuko da, pankarta bat erabiliz.
 - Herritarrei elkarretaratzean parte hartzera deituko zaie, eta deialdia sare sozialen eta komunikabideen bitartez ere zabalduko da.
 - Komunikatu bat irakurtzearen aukera baloratuko da. (Protokoloan aurrez prest utzi daiteke)



8.1 ERANTZUNA ERAIKITZEKO OINARRIAK

- **LEHENTASUNEZKO ARRETA:** Eraso sexista bat ikusten edo izan dela jakiten den bakoitzean, lehentasunezko jarduera biktimei arretea ematea izango da, eta horien esku jarriko dira beharrezko bitartekoak. Aipatu moduan, biktimei arretea egiteak hartzen dituzten erabakiak errespetatzea ere badakar berekin.
- **ERANTZUN BIZKOR, KOORDINATU ETA ERAGINKORRA:** Eraso sexista baten berri dugun bakoitzean, erantzuna bizkorra eta koherentea izango da, arazoan murgildutako erakunde eta eragile guztiekin koordinatua.
- **ERASOTZAILEAK ARBUIATZEA:** Indarkeria sexista indarkeriaz jokatzeko duenaren erantzukizuna da beti eta, beraz, erasoak eta erasotzaileak arbuiatzeko eta gaitzesteko erantzuna sustatuko da.
- **KONFIDANTZAZKO INFORMAZIOA:** Gizarte alarma saihesteko arduraz jokatu behar da, gertaerei buruzko informazioa kontrastatuta. Oinarri sendorik gabeko erantzun batek ez dio zero tolerantziaren kulturari mesede egiten, eta kaltegarria izan daiteke biktimentzat zein ustezko erasotzaileentzat.
- **INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA:** Biktimaren datuak eta eraso nola gertatu den adierazten duten xehetasunak konfidentzialak dira eta 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoak, babesten ditu. Hori dela eta, mota horretako informazioa biktimekiko arretaren ardura duten teknikarien esku bakarrik egon daiteke. Beraz, erantzun publikoa antolatzeko behar den informazioak datu pertsonalak ekidingo ditu (biktimaren izen-abizenak, helbidea...), eta baita ere erantzun publikoa prestatzeko ezinbestekoak ez diren erasoari buruzko xehetasunak.
- **PREBENTZIOZKO JARDUERA:** Egunero egiten den indarkeria sexistaren prebentziorako lana areagotu, indartu egingo da erasoren bat gertatzen denean, batez ere biktimen inguruan, biktimak estigmatizatzea eta errudun sentitzea saihesteko eta sentsibilizazioa sendotzeko.

9. PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Esku artean dugun hau indarkeria sexistaren prebentziorako eta jarduteko protokoloa denez, berau jarraitu eta ebaluatzeak honako alderdi hauek jarraipena egitea dakar: prebentziorako hartutako neurriak eta definitutako jarduteko prozedura (protokoloaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna egiaztatu eta hobetu beharreko arloen identifikazioa), berau abian jarri baldin bada.

Protokoloaren aplikazioaren jarraipena eta ebaluazioa, horren prebentziorako neurrienak eta jarduteko prozedurebnak, hobetu beharreko alor edo alderdiak identifikatzeko balioko dute. Hobekuntza horiek kontuan hartu beharko dira protokoloa aktibatzen den hurrengo aldietan edota protokoloaren hurrengo eguneratzean. Ildo horretatik, ebaluazio orok kontaun hartu beharko ditu lortutako emaitzen analisia eta hobetu beharreko alderdien identifikazioa.

Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioaren arduraduna **koordinaziorako mahaiarena** izango da:

- Protokoloaren jarraipena egiteko koordinazio mahaia urtean behin bilduko da, jaien aurretik.
- Lortutako emaitzen ebaluazioa aldizkakotasun handiagoarekin egingo da, bi urtean behin.

Bi kasuetan koordinazio mahaiaren deialdia Irurako Berdintasun Arlotik egingo da.

Hala ere, beharrezkoa da jarraipena eta ebaluazio berezi eta ohiz kanpoko egitea, aipatu aldizkotasunaz gain, eman daitezken kasuentzako aurreikusitako jarduteko prozedura lehenbizikoz aplikatu ondoren, aplikazio hori edozien delarik ere.



**Irurako
udala**